

IRITZIA

HAINBAT ABURU



INAZIO ARREGI

"Xaukena xauk"? Ez, mesedez!

Nahi baino gehiago ari da esaldi hau hedatzen oñatiarren artean. Sarri harritu egiten nau emisorearen euskara maila txukuna ezagututa, eta entzutean pentsatzen dut: "Brutus ene semea! Zuk ere bai?".

Esaldia euskararen zulentasunaren degradazioaren adierazle onenetakoa da, nire ustez. Aitzitik, askorentzat, euskara jatorrenaren eredu, eta horregatik erabiltzen dutela pentsatu nahi dut. Kanpotik, batzuk ere hasi omen zaizkigu oñatiarrok esaldi horrekin ezagutzen lehenago erabili izan duten *xiketa xauk*-en orde. Ez zait egokitu, baina hau izango da nire erantzuna: "*Xiketa xauk*, tira! Baina *xaukena xauk* ez, mesedez!".

Xaukena xauk-ek bi bekatu ditu, gutxienez: bat, beharrik

gabeko *euskañol*-a izatea, *Hay lo que hay*-ren itzulpena hitzez hitz, *Hau besterik ez dago!* Edota lehenago erabiltzen ziren forma zaharragoek *euskañol*-aren abantailarik ez balute legez. Eta bigarrena, hitanoak onartzen ez duen eran erabiltzea aditz horiek atzetik *-n* edo *-ela* hartzen dutenean. Hots, *esaten xuai ez dakigula ebalten*, baina ez *esaten xuai etxakixaula ebalten*. Eta *dagoena baino etxauk*, bai, baina *xaukena xauk* ez, mesedez.

**ESALDIA EUSKARAREN
ZULENTASUNAREN
DEGRADAZIOAREN
ADIERAZLE
ONENETAKOA DA**

Bi bekatu larri izanda, harritzekoa da forma hau nola hedatu den ikustea; are gehiago, asko jota duela bi hamarkadatarako asmakizuna baino ez dela kontuan hartuta.

Euskarak erabiltzaile asko irabazi ditu azken urteotan eta hori lorpen handia da. Okerren, platertxoan, kantitatearekin kalitatearen galera etorri dela. Gaur, oñatiar askoren euskara maila eskasak, eta, bereziki, hika erabiltzean, harridura eragiten du.

Askok ez dute jakingo gaizki ari direnik ere, eta ez litzateke txarra norbaitek hikaren arauak ikasi eta praktikan jartzeko interesatuta daudenentzat jardunaldiak antolatzea. Pare bat saio nahikoa lirateke arau eta formak ikasteko. Euskaltegiak egin dezake? ■■■